

Tolosako Bizikidetzaren Foroa. Kontakizun etikoa 2021eko otsailak 22

Gure herrian sufrimendu mota eta egoera latz asko, gehiegi, eman direla eta oraindik ematen direla jabetzen gara. Askatasun falta, jazarpen, errespetu falta mingarriak eta urraketa larriak eman izan dira eta neurri batean ematen dira. Guzti honek bizilagunen arteko harremanetan haustura sakonak eta lubakiak sortu ditu. Gure artean "gureak" eta "besteak" identifikatzeko dinamika nagusitu da eta neurri batean mantentzen da. Dinamika honek sufrimendu desberdinenaren hurbilketa eta begirada baldintzatzen jarraitzen du, pairaturiko minari ukazioa, babes eza edo gutxiespenaren mina gehituz. Guk dinamika hori hautsi nahi dugu, eta gure herriko biktimak aitortzerakoan, ez dugu indarkeria norik eragin duen edo sufritu dutenen arteko desberdintasunik egin nahi.

Eta horrek, izandako indarkeriek eragindako sufrimenduari begiratzeko partekatzen ditugun oinarriko irizpide etikoak bilatzera bultzatu gaitu. Urteetan modu partzialan aldarrikatu diren giza eskubideen errespetua modu integralean aldarrikatzera garamatza. Abiapuntu amankomun horretatik, euren giza eskubideak urratuak izan dituzten pertsona guztiak biktimak direla aitortzen dugu. Bizikidetzaren eraikitzeak pertsona ororen giza duintasunarekiko errespetua baldintzarik gabe onartzea suposatzen du. Giza eskubide guztien errespetua, oinarri etiko partekatu bezala onartzeak, urraketa guztiak gaitzestea suposatzen du. Urraketa orok suposatzen duen bidegabekeria onartzea, alegia.

Ez da gure asmoa biktima guztiak parekatzea, baina bai urraketa guztiei berdin begiratzea. Biktima guztiei egia, justizia eta erreparazio eskubideak zor dizkiegu. Izan ETAK zein inguruko taldeak (CCAA) bere indarkeriaren bitartez eragindako biktimak, izan Estatuak sustaturiko talde armatu ilegalak (GAL) edo ultra eskuindar taldeen indarkeriak eragindako biktimak (Triple A, BVE...), zein poliziak eragindakoak.

Guk biktima guztien sufrimendua gure egin nahi dugu. Halako urraketak ez zutela inoiz gertatu behar, ez lehen, ez orain eta ez gerora ere adierazi nahi dugu. Urraketa guzti horiek pertsona eta familia askorengan, errepara ezina den sufrimendua eragin dute eta askotan behar zuten babesa eta hurbiltasuna emateko gai izan ez garelako aitortzen dugu. Oraindik oso bizirik diren sufrimendu eta zauriak guztion babesa eta aitortzaren beharra izaten jarraitzen dutela ohartzen gara. Eta egin dezakegun ekarpenik onena etorkizunean halakorik errepikatu ez dadin gure alea jartzea da, giza eskubideekiko konpromiso irmoa eta baldintzarik gabekoa berretsiz.

Gaur egun, sufrimendu egoerak mantentzen dira. Etorkizunari begira eta bizikidetzaren sakontzen jarraitze aldera, taldekideen artean gertatzen zaigun bezala, gizartean ere, diren ikuspegi ideologiko desberdinen arteko desadostasunak kudeatzea da dugun erronka handi bat. Bakoitzak bere ikuspegitik egungo desadostasun politiko zehatzei erantzuteko modu desberdinak ditu. Hala ere eta horri uko egin gabe, desadostasun ideologikoak kudeatzeko modu arautuaren beharra partekatzen dugu. *Giza eskubideetan oinarrituriko eta desadostasunak bide baketsu eta demokratikoan kudeatzeko aukera bermatzen duen Zuzenbide Estatu Demokratiko eta Sozial baten barnean konpondu beharra partekatzen dugu. Elkarri oinarrikoa den giza duintasunarekiko errespetuan eta elkarrizketa zintzoan eraikitako bizikidetzaren zor diogulako.

*** Foro kide batek ezin du testu hau onartu berarentzat honako hau jasotzea ezinbestekoa delako:** "Giza eskubide eta Zuzenbideko Estatu Sozial eta Demokratikoaren legearen barruan (konstituzio Legea, gure kasuan) oinarriturik desadostasunak konpondu beharra partekatzen dugu".